# ...KABI@...

**abenduaren**
**5ean eta 6an**




DA!

59. DURANGOKO AZOKA
2024ko abenduaren 5etik 8ra

# abenduaren 5ean

## Bizenta Mogel Liburutegian




### BerPiztu ordenagailu zaharra

Tailerra // Elkartenet

10:30
12:00
Ikasle goiza
**Beteak**

LUBERRRI sistema eragile libre eta euskalduna instalatzen ikasteko lantegia da. +




### Gymkhana: digitalizazioa jokoan

Tailerra // Leire Lisón

10:00
11:35
Ikasle goiza
**Beteak**

Digitalizazioa ikuspegi kritikoarekin lantzera bideratutako saio honetan, ikasleak rol nahiz jakintza-jolasetan murgilduko dira. Taldean lan egin beharko dute aurkeztuko zaizkien erronkei aurre egiteko. +

## Areto nagusian




**Game Erauntsiak** eta **Rolariak**, bakarrik edo lagunekin, jolasteaz gozatzeko tartea irekiko dute Azokaren erdian.

**10:30 - 14:00 // 16:00 - 19:30**

# abenduaren 6an

„KABIE„

## Bizenta Mogel Liburutegian




**11:00**

### Kutxaz Kanpo: hemen pentsatzeari jolastu esaten diogu

Tailerra // **Fikzio fabrika** + **Badalab**

**Izen ematea: info@fikziofabrika.eus**

Saio honetan mahai eta karta jokoak erabiliko ditugu euskararen etorkizunak elkarrekin pentsatzeko, esperiantzia ludikotik abiatuta euskararen eta euskal gizartearen erronkez eta beharrez elkarrekin pentsatzeko. +

## Areto nagusian

### Eremu digitala pentsatzen eta garatzen



**16:00**

### Adimen artifizial sortzailea?

Mahaingurua // **Elhuyar**

Zer da adimen artifizial sortzailea? hezur haragizko sortzaileen lan-tresna edo langabeziara bidaliko dituen teknologia? Nondik elikatzen dira adimen artifizialak eta norena da haiekin sortutakoa. +

TO RRE KUA

**16:40**

### Torrekua - Teknologia libreak sortzeko, sustatzeko eta saretzeko sormen espazio komunitarioa

Aurkezpena // **Gorka Julio**

Teknologia Libreekin eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearekin lotutako sormen espazio komunitario eta interkooperatibo bat izateko helburuarekin sortutako laborategia da +

**17:00**

### Begizta

Aurkezpena // **Izarkom** + **Onaro**

Badator Begizta! Izarkomek beste hainbat eragilerekin batera osatu eta eskainiko duen online bidezko telebista zerbitzuen plataforma. +

# abenduaren 6an

## Areto nagusian

### Hezkuntza proiektu transmediak ezagutzen




**17:30**

Margo Piratak

Aurkezpena // **Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga**

Iskander Sagarminaga itsasoko igerilariak eta Eider Eibar ilustratzaileak 7 itsasoen erronkak igerian eta marraztuz euskaraz sorturiko eduki digital guztiak biltzen ditu. +




**17:50**

Egin Ttap!

Topaketa // **Kukulaisi**

Egin Ttap! familian jokatzeko online lehiaketa bat da, Euskararen Egunaren harira, 7 egunetan zehar martxan egon dena azaroaren 22tik azaroaren 28ra. +



**18:30**

Erronka digitalak. Nola garatu erabilera kritikoa?

Aurkezpena + Mahaingurua // **Ikusgela** + **Badalab**

Nor gara sarean? Nor izan gaitezke? Zenbateraino gara pantailen esklabu? Bada zurrunbilotik ateratzerik? Adimen artifizialak sortzen duen hori artea da? Eta norena da jabetza? Noren esku dago internet mugatu eta arautzea? Zein oztopo ditu euskarak sarean? Erabili dezakezu irudi edo bideo bat zuk nahi duzunerako? +

# abenduaren 6an

„KABI@„

## Areto nagusian

### Hitanoa eta teknologia berriak

**19:20**

Appa Hi! eta hika.ahotsak.eus

Aurkezpena // **Aintzane Agirrebeña eta Idoia Etxeberria**

Badihardugu Euskara Elkarteak hitanoaren inguruko aurtengo nobedadeak aurkeztuko ditu: batetik, Appa Hi! aplikazioaren 2024ko bertsioak eta, bestetik, Hika.ahotsak.eus webgunea. **+**




**19:40**

Leitzako hitanoa berpizten: Hika eta toka. Noka ere toka!

Aurkezpena // **Fernando Oiartzun Sagastibeltza**

Leitzako hitanoaren bilduma liburu formatuan auzolanez osatu ondoren, orain ikus-entzunezkoa gehitu zaio hika, erregistro informala, berpizteko sorturiko proiektua. **+**

---

Azoka egunetan honako sareetan banatuko dugu K@biari loturiko programaren zenbait eduki:

https://mastodon.eus/@kabiadurango

https://pixelfed.eus/kabiadurango